



Zarautz Ekialdeko eta Oiartzungo ordainlekuen berritzeko lehen fasea amaitu da

Bi ordainlekuek bide berrituak eta modernoak estreinatu dituzte



Zarautz Ekialdeko eta Oiartzungo ordainlekuen berritzeak aurrera darrai eta azken egunetan eraikitako bide berrituetan frogak egin ostean, gaur zabaldu dira. Zehazki, Zarautz Ekialdean zabalera berezia duen bide dinamiko bat ireki da, eta Oiartzunen aldiz, bi bide dinamiko ireki dira.

Bi kasuetan, bertan zeuden markesinak eta bideak eraitsi dira, eta arkupe berriak jarri dira. Erabiltzaileek bide berri hauetatik Abiatu eta VIA-T gailuak gelditu gabe igaro daitezke. Era berean, bide hauek telefono mugikorraren, erloju adimendunaren eta banku-txartelaren bidez kontakturik gabeko sistema erabilia ordaintzeko aukera ematen dute, eta eskudirutan ordaindu nahi duten erabiltzaileek makinan bertan egin dezakete. Bide berri hauek matrikulak irakurtzeko kamerak eta ibilgailu mota bereizten laguntzeko sistemak dituzte, baita erabiltzaile-operadore urruneko komunikazio-mekanismoak ere.

Lanak ordainlekuen operatibitatea mantenduta egin dira. Behin, hiru bide berri hauek – bat Zarautzen eta beste bi Oiartzunen – irekita, ordainlekuen berritzeak aurrera jarraituko du. Helburua da, urte amaierarako gainerako faseak amaitzea eta ordainlekuak berrituta egotea.

Bidegik 7,5 milioi euroko inbertsioa egiten ari da bi ordainleku hauek berritzeko. Berezitasun bezala, Zarauzko ordainlekuan bi bide itzulgarri jarriko dira, eta Oiartzungoan kontrol zentroa egokituko da.

Finaliza la primera fase de la renovación de las estaciones de cobro de Zarautz Este y Oiartzun

Las dos estaciones han estrenado vías renovadas y modernizadas



La renovación de las estaciones de cobro de Zarautz Este y Oiartzun sigue adelante y tras realizar diferentes pruebas en las renovadas vías hoy se han abierto las mismas al tránsito de vehículos. En concreto, en Zarautz se encuentra ya abierta la vía de entrada que cuenta con ancho especial, y en Oiartzun, se ha procedido a la apertura de dos renovadas vías.

En ambos casos, se han sustituido las marquesinas y las vías existentes y se han colocado nuevos arcos. Las y los usuarios pueden transitar por estas vías utilizando los dispositivos Abiatu y Via-T sin necesidad de detenerse. Del mismo modo, las nuevas vías están preparadas para aceptar pago sin contacto a través del teléfono móvil, el reloj inteligente o tarjeta bancaria, y disponen de máquina para poder pagar en efectivo. Las nuevas vías están equipadas con cámaras de lectura de matrícula y sensores para diferenciar el tipo de vehículo, así como de un mecanismo de comunicación entre el o la usuaria y la operadora.

Los trabajos se han realizado manteniendo la operatividad de la estación. Una vez abiertas estas tres vías – una en Zarautz y dos en Oiartzun –, continuarán las labores de renovación de ambas estaciones de cobro. El objetivo es que las fases que restan puedan estar finalizadas y por tanto las renovadas estaciones de cobro puedan estar operativas a final de año.

Bidegi está realizando una inversión de 7,5 millones de euro en la renovación de estas dos estaciones de cobro. Como particularidad cabe destacar que en la de Zarautz dos vías serán reversibles, mientras que en Oiartzun se adaptará el centro de control de la estación.